

IGNACIO MARIA ETXAIDE LIZASOAIN

(1884 - 1962)

Azaroaren 30ean, Gipuzkoako Foru Diputazioaren areto nagusian, Ignacio Maria Etxaide zenaren sortze mendeurrena ospatu zuen Euskaltzaindiak. Euskaltzainburua, I. M. Etxaide zenaren Yon eta Ana Mari seme-alabak eta Xabier Aizarna Batzar Nagusietako lehendakaria mintzatu ziren Etxaide zahar-raren izatez eta lanez. Guk ere, bere oroitzapenez, zenbait lerro eskaini nahi ditugu, Urkixo Mintegiaren sortzetik hil zen arte zuzendari izan zenez.

Haren bizitza eta lanez bere garaian zerbait publikatu bazen ere (ikus, 1962ko *Egan* aldizkari honen 169-172. orrialdeak), jaiotzaren mendeurrena betetzeaz bere oroitzapena berrieztea legezkoa iduritzen zaigu.

Ignacio Maria Etxaide Lizasoain zena Donostian jaio zen 1884ko abenduaren batean. eta Donostian bertan hil 1962ko azaroaren 14an. Industri inginiaria, Gipuzkoako telefono-sarearen zuzendari, Urkixo Filologi Mintegiaren buru eta Euskaltzainburu 1952.etik 1962ra bitartean.

Anitz obraren egile genuen bai euskaraz eta bai erdaraz. Telefonikaren teknikaz eta euskarari buruz gehienak; bere ideetako integrismoari buruz ere idatzi zuen.

Hona hemen erdarazko bere lanik nagusienak: *Subfijación, Prefijación y Composición en el idioma Euskaro* (1911); *Tra-*

Badakizue grenadieraren kantua?

Grenadier ibilia,

Hanitz ikusia

Eta guti ikasia?

Ni beldur holako zerbeit lotzen nizela.

* * *

Beraz nere gerlarien azken berriak igorri nintuen treirian ginoazilarik burrunban, Parisen gaindi, Montdidier hiriri buruz.

Bazterrak ilun; oro harrituak, ezin sinetzizko berriak baitzabiltzan.

Alimaleko kanoi bat hasia zen Parisera buruz, ehun eta zonbeit kilometretarik. Anglesek amor emana holetan: ... Anglesen eta Frantsesen junta kraskaturik, zilo hartan barna Alemana heldu hats gaitzean, itsasoa iduri.

Egia zen.

Treinetik jautsi, igan beribil handien barnera, jautsi, egun erditan buruz buru egin Alemanekin, lotu guduari, bide puska bat irabazi, eta tiro bat zangoan sakatu zerautan Aleman demonio batek.

Hanbertzenarekin bidea zerratua nuen alde guzietarik nere gibelesko lagunetara buruz.

Begi kolpe batez ikusi nuen ateka hitsean nindagoela sarturik, kara beltzeko gizonekin bainuen nere egitekoa; hobe nuela naski hila egitea, sekulakoa bil ez nezan nuenaren gainera.

* * *

Etzen halakorik: bazuten alabainan nitaz bertze lanik eta sabeleko minik: zakurrari baino gehiagoko ohorerik ez nuen bildu. Hala hobe nuen.

Galdatu zerautan, bizkitartean batek denboraren buruan ea kanoiak hel-araziak zituzten Frantsesek: nik ezetz, etzela kanoi ez bertze debru fitsik...

Ordu berean hasi zen kanoi ttipi bat, gero bertze bat, erdiz erdi gu ginauden landaren gainera: tokia hustu nuen herrestan, Montdidier han berean bainuen, harat buruz. Oren erdi baten bidearen egiten lau oren emanik, sartu nintzan azkenean soto baten barnera.

Etzen goizegi. Hiriaren xehatzeari lotuak ziren Frantsesak, peza handiekin. Karrika hegal osoak lurrera zoazin, herrautsiak.

Etsaiez betea zen delako sotoa. Gaitzeko erasietan ari ziren, zoin gehiagoka, iduri jauzian elgarri lotzekotan zaudela. Ez nakien oraino halakoa zutela beren artean mintzatzeko ara, urdeak bezalako kurrinka samin bat.

* * *

Zer zuten bada solasa? Bi hitz entzuten nituen maizenik: *Kapitalist* eta *kaput*. Lehenbizikoak erran nahi du sosduna; bigarrenak erran nahi du hila, funditua, lehertua, xehatua, herrautsia, galdua eta holako. Sosdunen lehertzeaz ari ziren.

Nitaz etzuten axolarik. Ez behatze bat, ez ele bat. Beharrik banuen lotura bat, bainan lohiz emokatua nuen.

Betbetan itzultzen da bat niri buruz, eta bertzelako garbitasunik galdatu gabe erraten daut samin samina: «Kapitalist?» ea sosdun handi hetarik nintzen.

Aleman hizkuntza hura puska bat marraskatzen bainuen, ihardetsi nioen zalu zalua irri batekin: «Ni kapitalist?»

Baduka burutik? Hi bezala kapitalist, ene lanarekin!»

Bere lagunei oihu eginik, oro bildu zituen nere ganat, ez nintzela kapitalist, *kamerade* nintzela. Esku emanik, solasean hasi ginen, kanoien azantz izigarriaren artetik.

Ageri zen norat eroria nintzan. Oro elgar iduriak ziren, edo bederen barnez soldado on zirenak, bertzen beldurrez ixilik zauden. Etzen aitzindarien beldurrik, ez baitzen.

* * *

Heien gogoan arras barna sartu nintzan, baizik eta «kapitalistak» zirela gerla hontaz hobendun, bainan etzutela oraino Alemanek aski odol erakutsi heieri jazartzeko; gu Franzian biziki gehiago ginela bazterren nahasteko eta harrotzeko.

Hortan ihardetsi zuten ez nakiela haien berri: nik uste baino barnagodanik lotuak zirela lan horri... ikusiko nuela...

Orduan galdegin nuen ea bazuten oihalik, edatekorik eta jatekorik. Baietz. Lotura berritu nuen nihaurek.

Edatarea ukan nuen *cognac* zafla bat ederra, han berean hatzemana baitzuten; ogi eta haragi anglesa; paxtiza puska bat, Alemania barnetik ukana soldado batek eta gero, nerekin ereman nezan bideko, Bordeleko botoila bat, han hatzemana hura ere.

Toki onerat eroria nintzan. Gaua han iragan nuen, ez baitzen ateratzerik kanoi suarekin. Gau hartan jakin nuen gure soldadoek lehertu zituztela Alemanak han berean.

Ene sotoko gizonetarik batek erran zerautan gibelerat ari zirela, bainan futitzen zela, guk irabaz ala heiek.

* * *

Pazko goiza zen. Bihotza pizturik ateratu nintzan soto ha-
ren barnetik; harjoa zela jadanik atzeman nuen soldado
Alemana.

Ahurtara bat gizon baizik ez nuen ikusi: oro nerekin zi-
ren gerlaren trenkatzeko bazterrak nahasiz.

Gudian ikusiak gudari hautak: zer ere baizuten gogoan
eta bihotzean, bazakiten guduko lanaren berri: hortan itzal
guti alemanak. Bainan ez dut egundaino ahanzi, Alemaniako
egun dorpeetan, soto hartako solas aldia. Nere lagunekin zon-
bat aldiz ez dut aipatu alde hortarik ginuen esperantza?

II

...Behingo aseak eginak nintuen.

Balinbada nehor nitaz jeloistu denik, erran dutalakotz atzeman nuela bihotzaren piztekoa Alemanen eskutik, lehen solas aldi hartan, halakoez ez dakite norat abiatu nintzen. Ez nakien nik ere.

Dena den, handik higitu behar zen.

Goiz hartan kanoiak ixilduxeak baitziren, karrika gainera sudurra eman nuen, behar nuela nolapeit deliberatu.

Desmasia gaitzak bazter guzietan: zaldi hil, karrosa xehakatu, odol istil, etxe herrautsien artean: kristorik ez ageri.

Betbetan, iduri harri meta baten barnetik ateratzen zela, Aleman batekin egiten dut buruz buru: adin bateko gizon bat, ile ta bizar gorra, sagarroiaren biloak bezen zail, mozkorrarekin doidoia xutik zagoena, otarre bat galtzarrean, oilasko urkatuz mukurru betea, sakela guzietarik ageri boitoila lepoluze batzu: ikusteak berak eman zerautan gogora ez ote nuen nere matoarekin perekatuko, okaztagarria baitzen, eta gu biak han bakarrik bekoz beko.

Hura irriz, begi zuri batzuekin: Malur, guerre!

—Hiretzat ez segurik, Ez ahal duk egun guzietan etxean holako pestarik egin! Errak, eta... ez dea medikurik hemen kolpatuentzat?

—Haratago, soto baten barnean.

Bazakien, demuntreak, sotoen berri!

* * *

Erran bezala, kurutze gorriko bandera ttipi bat ikusi nuen bide sahetsean. Han sartu eta jarri. Alimaleko saki batzuen lotzen ari ziren barne hartan, gure kanoiek eginak gau hartan. Bazen ausarki lana; tokia xuhur, orok ni poxolu.

Artetan beribil bat agertzearekin, hartan ezartzen zituzten, krik krak, zalu zalua, eta bazoan firrindan.

Ene aldia sekulan ez heldu. Ez loturarik, ez juaiterik, ez hitzik hantxet zakurraren kondu.

Azkenean, ikusirik bakarrik gelditzen nintzela, igan nintzen azken kolpatuarekin beribilean sartzeko.

Baitzen toki bat hutsa gidariaren aldean hantxet jartzen niz eta bagoazi.

Abiatu gireneko, geldi-arazten gitu aintzindari batek: «Emak Frantses hori lurrerat, petrola untzi bat ereman behar baituk! —Zer! hemen utz? Zangoa «Kaput» du —Nahi badu bai! Kentzak hortik ferafutro!

Ikusirik kurrinka samintzen ari zitzaiola gizonari, petrola untzia begistatu nuen. Sar zitaken nerekin batean, zangoen artean kokaturik. Erran nioten bazela bien tokia. Onartu zuten, juramentu bat edo bertze goiti beheiti.

* * *

Handik laster utzi nintuzten baraka tzar batean. Bazen kolpatuz elementia bazter guzietan, oro kasik Alemanak. Ga-

ragar salda tzar batekin bazkaldurik, etzanik eman ginuen eguna. Bertzelako artarik etzen.

Ilunean karro tzar batzu jinik, higitzeko on ziren guziak heien barnean sakatu zituzten. Zer nahi ikusi ginuen, bideak eta oro gaixtoak baitziren, eta gero uria bizkar hezurreen. Han entzun nintuen Alemanez juramentu mota guzietarik.

Bi orenen buruan, belazko barne handi batean sartzen gira. Han ere zoko guziak kolpatuz emokatuak. Gure bustiaren gainean etzan hala, zerri pazkaki zerbeit jastaturik. Sukarra nausitu zitzaukun gehieneri. Burutziarik ezin eginez, oren laurden guziez oihu egiten zuen medikuak: «Oinez ibiltzeko on diren guziak abia ditezela!».

Ene aldeko gehientsuak joan ziren oinez biharamunean. Herrestan egon nintzen, lotura bat nahi nuelakotz, garbiki egina. Eguna iragan zen hala hala. Huts arau zokoak betetzen. Beti oihu bera: «Oinez abia!» Etzen alabainan deusen manerarik han berean.

Gauaz Anglesek harrotu gintuzten izigarriki beren aireplanekin. Zonbeit gizon izan ziren xehakatuak. Gogoari eman nuen tokia hustu behar nuela goizean goiz, zer nahi gusta.

Bi makila atzemanik, gaina trozatu nioten mokanesarekin, kaltzar makila idorregiak baitziren.

Goiz osoa hala eman nuen hatsa galdu artio errebide handian barna, ustez eta zerbeit parada atzemanen nuela. Bertze asko gisa berean bazoazin. Azkenean, ororen gibeletik gelditu nintzen, zango batekin ezin jarraikiz. Eguerdi irian Roye-ko herrian sartzen naiz. Alemanez betea zen.

Jaten ari ziren. Ukan nuen, soldadoek emanik, garagar salda xorta bat.

Beribil handi batek hartu nintuen handik Nesle-ko hiriraino, eta gero han utzi karrikaren erdian.

Bertze batean sarturik, Ham-eko inguruetaraino heldu ginen. Errebide bazterrean utzi nintuen, bide kurutze batean.

III

...Iluntzean, trein bat gibelera baitzohan, iparrera buruz, ikatzez husturik, hartan sartu ginen, Angles moltzo bat, Aleman kolpatu batzuekin nahasteka, bizpalau Frantses berex.

Ikatz herrautsean etzanik eta tripa arinik eman ginuen hartan gaua, eta biharamuneko goiza.

Azkenean Maubeuge-ko hirian gelditu zen. Jautsi ginen eta bide sahetsean jarri, sudurra zimur, harri meta batzuen gainean.

Oren bat, bi oren, nehorako manurik ez. Bi aintzindari gazte heldu zaizkit. Gerrena bezen xut eta tinki josiak, urrezko lunetak soinean, frantses hiztegi bat eskuetan, lotzen zaizkit solasean ikarragarriko erdara latz trukes batean: Oraikoan haatik Parise kaput! Bagoazi Pariseraino!

—Ez jaunak, ez. Ez oraikoan, ez gero!

—Zertako ez bada?

—Hartako!

—Errazu bada zertako.

—Zer! ez duzue ikusten zuen armadaren oldarra ez da goela Pariser buruz, bainan bai itsasoari buruz Frantsesen

eta Anglesen junta trenkaturik? Ederki hasirik, ja leher egina du xede horrek.

—Uste duzu?

—Bai jaunak, uste eta segur. Aski goiz ernatu da Frantsesa. Zuek egin zilo hartan ez duzue bertzerik atzemanen. Bide hortako azken urratsak eginak dituzue.

* * *

Elgarri behako bat eman zuten, etzuketela hortan gehiagorik atera.

Bertze solas bati lotu ziren.

—Zertako deitzen gituzte *Boches*?

—Ez dakit. Nehork ez daki Frantzia guzian. Orok hala deitzen, bainan ez jakin zertako.

—Badakizu.

—Ezetz!

—Erraguzu. Ezagun da badakizula.

—Orizue, lehenago erraiten ginuen *Prussiens* eta bertze izen asko. Orai ez dugu egiten berexkunderik Alemanen artean. Oro izen beraz deitzen ditugu, *Boches*, oro zaku berean. Hori bai, badakit. Bertzerik ez niri galda, ez baitakit».

* * *

Juan ziren. Anartean, haur ttipi batzuek ikusirik baginela han bizpalau Frantses, lasterka airian barna abiatu ziren be-
rriaren hedatzeko.

Ez nuen sekulan erranen halako jendeketa behar zela bildu mukuzu heien erranera. Haurrez eta jende larriz berehala zer

nahi metatu zen, hanbertzetaraino nun soldadoak izan baitzi-
ren manatuak heien urruntzeko gure aldetik.

Itzulian heldu zitzaizkigun berriz oro: zaukaten, ebaska be-
deren hel-arazi behar zaukutela, Alemanen ixilik, mokanes bat
bederen edo sukre mokor bat.

Entzun dut geroztik ele frango alde hartako jendeaz.

Egun hartako oroitzapena daukat nik gogo bihotzetan bar-
na sarturik: egun hartakoa eta gero handik ateratzeko egu-
nekoa. Niri bezala nere laguneri nigarra jauztu zitzaioten be-
gietara, ikusirik beren ezinbertzen erdian beren buruak
ahantzirik zoin gehiagoka nola lotu ziren gure sustengatzeari.

Ezagun zen Alemanak lau urtez etzuela bertzerik egin bere
tzarkeriez. Frantziaren amodioa finkatze baizik.

* * *

Eskola batean ezarri gintuzten azkenean. Elizak eta oro
kolpatuz beteak ziren. Han sartzean harritu nintzen ikustea-
rekin gizon moltzo bat, hezur eta larru eginak, gorputza piru
bilakatua, begi handi batzuekin, herioa jada aztaparrez lotua.
Italianoak ziren.

Galdatu nioten zerk zituen halakotuak. Goseak zituen xa-
hutuak bi hilabetez, Alemania barnean. Beren lagunetarik
metaka bazituzten galduak, hotza eta gosea biak betan jasa-
nik. Hek hunat igorriak, toki eztixago batera, hats-bizi.

Gogoeta beltzak nerabiltzalarik nere geroaz, barne batean
sar-arazten nute. Taulazko oheak lerro lerro, inguru guzian,
birazka josiak bat gainean, bertzea behean. Ohe bakoitzean
bi kolpatu.

Frantses batekin eman nintuzten. Hain xuxen etzen bi
Frantses baizik. Bertze guziak Angles eta Italiano.

* * *

Hango garbitasunaren egiteko, bi Italiano, alferrak eta jale handiak, oihuz karrasian gau eta egun bazterrak airean zauzkatena.

Medikuak onak ziren: beren lana egiten zuten bere tenorean xuxen, ixil eta zalu. Bainan oihalik ez loturen egiteko. Oro paperez.

Jatekoa xuhur. Dena ere tzarra. Hango hoherena, garagar poxi bat.

Bi frantsesak janez hobekixago ginen. Baitzen han aleman zahar bat, zerbeit esku gain zuena ospitaleko zeretan, harrek zuen bere gain hartua gu bien artatzea. Berak bere eskuz emaiten zeraukun jatekoa. Bertze guziera Italianoek.

Ez dakit zer zuen golkoan, bainan goiz batez sekulako juramentuak egin zituen Italiano bati, jaterat eman zaukulkotz harren manurik gabe.

Geroxago ere ikusi behar nuen Aleman bat baino gehiago Frantsesen alderat ekarriago: Angles ala Italiano idorki zera-biltzkaten denboran, Frantsesak uzten hein bat hatsaren harzterat.

Bizkitartean zikinak janak ginen. Ez atorra bat aldatzeko, ez ur xorta bat garbitzeko. Ehun aldiz galdaturik, hamabortzgarren egunean ur xorta bat bildu nuen, eskuen ikuzteko. Gudu tokiko lohi guzia nerekin nuen oraino soineko guzietan.

Gauaz etzen lo egiterik, Italianoak zinkurinaz eta kurrinkaz ez baiziren ixiltzen.

Eguna buru emaiten ginuen soineko azinden kondatzen. Etzen han ahalgerik ez bertzerik: artaldez ere aberats ginen.

IV

Sakiak hein batean gogortzearekin, tokia hustu behar zen iparrera buruz.

Atseginekin ikusi nuen nere aldia jiten gaizkiago gintazke-lakorik ez baitzaukun gogoan sartzen ere.

Beljikan, Namur-eko hirian gelditurik zalditegi batean ezarri gintuzten. Bazen han gerlako zaldi hetarik andana gaitza, dena zakar eta plapu, kankail hutsak, doidoia xutik zaudenak.

Auzo pollitekin jarriak ginen. Oheko matelaza, egur azal hezez egina, gogorraren gainerat sapa bat emaiten baitzuen gorputzari leher egitekoa. Lehen bai lehen sendotzeko jokia atzeman ginen.

Han egon behar zangoen gainean bermatu artio, beterraba saldian goxo goxo.

* * *

Namur-eko jendeak egin zuen gure fagoretan ahal zuen guzia. Jaun andere batzu ikusten izanik, igorri zaukuten arroltze bana, ogi xuri eta sukre poxi batekin. Berek ezin bertze gorria zutela baginakien. Arroltzea pesta zen toki hartan.

Gure hango josteta guzia, leihotik karrikaren harat huna. Inguruetako haurrak biltzen ziren guregana oihuz: «*Vive la France, à bas Guillaume!*»!

* * *

Namur-etik azkenean Alemaniako bidean zinez sartu ginen maiatzaren erditsutan.

Handik harat toki ederretan gaindi ginoazin, *Meuse* delako uraren hegiz, *Liège*-ko hiri handian barna, Alemaniako mugetaraino.

Bazterrak gero-ta ordokiago: pazkaleku gizen, xara, etxeak ere noiztenka berex, nasai eta garbi. Huna nun itzalpeak emendatzen diren, eta jauregiak agertzen toki fresko xoragarri batzuetan gordeak: haratago, ostoen artetik, dorre andana bat zeruetan goiti doazila: *Aix-la-Chapelle!*

Lehenago denboretan izan baita enperadore bat guziz aipatua, *Charlemagna* harrek zuen hor hautatu bere hiri nausia. Beti gerlan baitzabilan bazter guzietan, horko uronek eta tokiaren ederrak emaiten zioten behingo sosegua. Euskal-Herrian ere ibili zen moroak *Espainia* gainetik urrundu beharrez: gure arbosoek garbitu ziozkaten *Ibañetako* lepoan bere armadako jateko guziak, gibelego azken gizon lerroekin. Bazen orduan ere orotarik iguzkiaren azpian.

* * *

Dena den, obra gaitzak egin zituen hor, bere gaztelua eta eliza nausi bat. Burua eliza hortan ikus ditake: lauetan hogoi zentimetra badauzka buru horrek; hiruetan hogoi ere bada zerbeit egungo egunean: halako gizona balin bazen, ez da mirakulu bazterrak oro bere meneko baitzituen.

Bego Aix-la-Chapelle bere dorren itzalean lokartzerat. Goazen aintzina.

Ordokia zabal eta aberats jausten da *Rhin* delako ur handiari buruz: zoko moko guziak baliaturik, emazteak ari dira lurgintzan.

Jada lantegi handiak ezagun dira, gero-ta handiago, lano beltz bat hedatzen dutela: Alemaniak daukan eremu aberatsenean sartzerat goazi.

* * *

Huna eskualde hortako erregina, ur handiaren hegian jarrira, biziki urrunetik izendatzen ginuena, bi dorre xoragarri ageri baitziren aspaldi ordoki zabalaren erditik: *Cologne!*

Aspaldiko hiria, hau ere, miliun erdi bat jende daukana; lehengo edergailuen gainera karrika zabal eta jauregiz aberastu berria, bainan guzien artean bego lehen horko eliza nausi miragarria. Ez da horren parerik Alemania guzian; munduko obra guti dira horrekin lerrokatzeko gai litezkenak.

Obra berrietan Alemanek arta handia erakutsi dute bereziki gara handien egiteari buruz. Cologne-koak badu goratasun gaitza. Bertze asko ikusi ditut hau bezen handi, bainan pisuago, moldegaitzago.

Jendea trumilka zabilan treinetan alde orotara, gehienak xutik laugarren klasan ezen badituzte guk bezala hirur klasa jartokiekin, laugarren bat ere xutikakoa.

Gogoeta nindagolarik norat ote behar ginen handik abiatu, iparreko bideari lotu zen gure treina. Gau osoa suaren erdian eman ginuen, ifernuko labeak idurikako lantegietan gandi.

V

Gau ilunean harrituak ginoazin, bazter guziak sutan zaudelarik, lantegiari jarraituzen zitziola, eta hiria hiriari.

Alemaniak nondik ote zituen holako indarrak mila gogoeta eginik baikinauden orai ikusten ginuen: horra beraz Alemaniaren bihotza, horra labeteiak, horra nun zituen moldatzen, lan ikaragarrien gostuz, bere kanoi alimaliak, bere burdineria, bere ifernuzko tresna beltzak.

Zer gizonketak lanean, zer harrabotsak, zer hiriak! Bortz hiri, lerro lerro berrehun mila jendez goiti bakoetak dauzkala eta bertze asko, orotara bi miliun jende, burdin eta ikatza-rekin borroka treinetik ageri baitziren, erdi buluziak, suaren eta lanaren sapa bortitz hartan!

Gure begiez halakoen ikustea amets lazgarri bat bezala zitzaukun. Gauaz egiteko bidea zen, Alemaniaren berri jakiteko. Gudu tokian bezen ontsa orduan ikusi ginuen zer hantsean Alemania bermaturik zagon garaitzeari buruz.

* * *

Bihotzean ausiki samina egin zeraukun lantegi hoienehadadura gaitzak, lau bortz orenen bidean.

Azkenean bazterrak eztitu ziren eta ixildu: iparreko bidea utzirik, iguzki aldera bihurtu ginen, handik laster Munster-eko hirian jausteko.

Urtutsik iragan nintzan hango karrika ederretan gaindi; bazen begien asetzekoa ilargi xurite baitzen, eta jauregi eder-
rrak bazterretan: bainan holakoek ez dute balio pipa bat tabako, tripa sekulako kurrinketan ari delarik.

Gehiago dena, laguneri ezin jarraikiz ahulegiz eta zangoa-
ren minaz, bide hegian jarri nintzan azkenean. Soldado ale-
man bat banuen nerekin. Erran nion etzuela zeren oihurik
egin; ezinbertzea nuela. Ez nuela gehiago urratsik eginen. Oren
laurden bat auzitan eman ginuen, hura oihuz *Los, los*, higi
nindadin handik, eta ni aldiz xuti, urrats bat egin eta jar.

Uste dut azkenean ostiko bat edo bertze bilduko nuela
gibel aldean, karro tzar bat ez balitz han gertatu, gure tokira
zohana: hartan sarturik, errege batek bezalako agertzea egin
nuen goiz aldera, bi zaldirekin, presuneren kanpaderan.

* * *

Hiri bat bezen handiko bazterrak zituen kanpadera horrek.

Taulazko etxe batzu, eremu gaitzekoak, bizpalau mila
gizon gostuan etzateko gisan, elgarretarik osoki berexiak
gain gaisetik zainduak, burdin hari bizardun, elektrika,
gizon...

Nere egoitza berrian etzen berrogoi frantses baizik: ber-
tze guziak Angles, Italiano, Portuges.

Zinezko Betiri Santsenian sartuak ginen. Gero eta gaiz-
kiago zohazin nere aferak. Hamarrak ondoan ikusi nuen pertz
handi batean zerbeit ekartzen zaukutela: gure bazkaria zen.

Urrunera hedatzen zuen arbi ustel usain bat leher egite-
koa: jasta eta utzi behar. Frantsesen ondarrera Anglesak eta

Italianoak lerroka heldu ziren: belaunika galdatuko zuten
gogotik pertzaren milikatzea.

Biharamunean ausina salda; gero berriz onjo mota gu-
zietarik egosiak nahas mahas belar, lur eta harrixkekin: ha-
lako gauza okaztagarririk ez dut ikusi.

Janaren araberako lana ginuen; deus ez. Berriak bai-
kinen oro, zenbeit egun han egon behar ginen: loz asetzea
haizu zen.

* * *

Hain xuxen orduan, zituzten kenduak mendekioz hango
presuner frantseseri Frantziak igorri bixkotxak; bertzalde
lehen bizpahiru hilabetetan hangoaz hangoa egin behar: ez
ginuen janaz bertze gogoetarik.

Sartu bezen laster, handik eskapatzeko solasak abiatu
ziren Frantsesen artean. Gehienek galdatu zuten lanera joai-
tea, lurgintza edo lurpe lan.

Nik ere bet-betan ikusi behar nuen nere bizia kanbiatzen.
Uste gabeko obra bati lotu behar nintzen Alemanian, handik
urrun, gerlak ziraueno. Jainkoak gizona gurutzezko bidean
derabilanean, gizonak ez du ikusten zer ondoriori dagon.

VI

...Munster-ko kanpadera hartan egonak ziren, hiriko apez batek bil-arazirik, inguruetan presuner zauden ixtudiant apez gei frantsesak.

Alsace-ko seme zen apez hura, Munster-eko hirian eskola emaile handi aipatuenetarik, Alemania guzian ezagutua: gizon bat ernea, bolbora bezen bizia bainan urrea bezen fina zart egia nor nahiri emaiten duten hetarik, gogoan hartuak baitezpada bururatzen ikasia, dena Alsace-ko odoletik.

Izena zuen Schmittling. Besoa frango luze baitzuen, hango aintzindarien ganik ardietsi zuen lehenik apez gei zonbeiten biltzea, kanpadera hartan bederen beren eskoleri jarraikitzeke zerbeit errextasun baitzuketen.

Gogoari emana zuen behar zituela bildu emeki emeki Prusian zauden apez gei presunerak: Bavière ala Saxe-ko lurretan zaudenez etzuen deus egiten ahal, berex baitziren hango armadak eta bere gain hango tokia zen.

Obrari lotu zen beraz Munster-eko jeneralari esker: etzuen huntan gobernamenduak sartzerik, presuneren buruzagien egitekoa zen.

Alde orotarik behar ziren agertu trabak: traba guzien artetik Schmittling apezak bildu zituen denboraren buruan hi-

ruetan hogoi ta hamar ixtudiant frantses, eskola emaile frantses hoberenen eskuetan. Eskolan, jana etzana, oro tau-lazko barne ttipi berean zituzten. Gehiago dena, obra beti dilindan zagon, etsaiez inguratua, soldado aitzindari baten hitz batek lastoa bezala lurrerat aurtikitzekoa.

Egunetik biharrera hitzaren jatea itsusi zitzaion Aleman Jeneralari hoinbertze frantsesen aintzinean, bere gisako urgulua baitute: bainan ezagun zen estakuru baten beha za-goela gizon maltzur barne beltza.

* * *

Noiztenka Schmittling gaizoa hats hantua sartzen zen ixtudianten buruzagien artean: «Otoi, emazue kasu; xahu gira. Jeneralak ez dakit zer duen tripan zuen kontra. Zer egin duzue berriz ere? Etsaiak ditutzue oro hemen. Gauden mal-tso, xahu gira bertzenaz!».

Gaizo puska! Bera zen sobera sartua frantsesen adixkide. Ez ote zituen egun batez presuner frantses batzu bere etxean ederki ase, gobernantari bazterrak oro bil-arazirik, zituenak oro azken pikorreraino? Ez ote zituen sobera bihotzekin sus-tengatzen?

Etsaiak zirela oro, bai, egia zen, Aleman zirenak oro: bainan zer estakuru atzeman. Heiek nahi zutena hauxe zen: ixtudiant frantsesen bizkarrean huts handienak ezarririk, go-raki tribunalen bidez handik berex eta desohora. Egitekotz, gauzak egin behar ziren handizki.

Baziren lan horri lotuak bereziki bi gizon; bat Frantsesa, bertzea Alemana, elgarren iduriak, ohoinak, presuneren lar-rutzale higuigarri, nahasi tzar gordeka lurpez ari diren hetarik.

Heiekin batean juduak. Judua zer den eztakienak, ez ditu gerla huntan ikusi presunereren artean. Beialako urrezko aratxea beti beren jinko: ez da heientzat ez herriaren amo-

diorik, ez jendetasunik: agur egin ondoan lepoa bihurtuko dautzute, berek ez bada bertzen eskuz, moltsaren onetan. Rusiano presunereren egiazko nausiak hek ziren.

* * *

Kanpaderako bertze frantsesen artean ixtudiantek indar handia zuten gisa guzietara. Holandia handik hurbil baitzen harat ihes egin nahi zutenek bazakiten norat bil eta nun zer galda: bertzalde, kapera handi bat moldaturik, jendeketa handia bil-arazten zuten goiz arats guziz eta igandetan ofizio xoragarriak egiten.

Hoik ere sobera etsaien begietan. Kanpaderako aintzindariak gezurrez hantuak zauzkaten gero-ta gehiago, Alemania-ko etsai minenak elgarretarik behar zirela berexi.

Egun batez, Rusianoak goseak hiltzen ari baitzituen, beren jateko poxitik ixtudiant frantsesek eman zioten zerbeit, lur sagar axialak eta oro baliaturik.

Etsaiek Rusianoak bildurik sinets-arazi zioten pozoina ziotela frantsesek eman, leher egin zezaten orok, zeren eta Rusiak orduan gerlari uko egin berria baitzuen. Erran ere omen zuten frantsesek, jatekoa moldatzean: «Urdeak urde jana behar du».

Hortarik izan zen asaldura gaitza Kanpaderan; paperez ibili zen harat hunat metaka; gezurrari erroak egin arazi nahiz zer nahi erabili zuten, baizik eta tribunalek bakarrik xurituko zutela ixtudianten egitatea.

Horekin batean bazen bertzerik ere: Alemaniaren kontra zer nahi bidez ari zirela lanean. Ez ote zituzten lagundu frantsesak ihes egitera? Ez ote zen ixtudiant bat lurpez eginikako bide batetarik ateratzean garbitua izan tiroz, Rusiano baten jauntzian abian zelarik Holandiari buruz?

Nork zakien bertzalde noraino heltzen zuten besoa ixtu-
diantek. Ez ote ziren gordeka sare hedatzen hari Alemania
guzian?

Holako solasak zabiltzan. Munster-eko semenario frantse-
saren azken egunak jinak ziren. Apez kartsu baten eskuz
moldaturik herrestan bizia emanik, ongi handia eginik gisa
guzietara traba handien artean, obra on ederrenek ohi duten
bezala, hek bezala hil behar zen, gezur eta herrak lehertua;
Alemaneria zer den ez dakienak, ikasiko du heldu den aste-
ko zatian, beren esku pisuaz nola zuten obra hori herrautsi.

Bainan bazen norbeit hek baino handiagokorik berriz
piztu behar zuena: beren gerizataile hartua zuten ixtudian-
tek Andre dena Maria: presunereren geroa gure zen.

VII

...Zertaratu zen gero funtsean gure gain emana zutelako Rusoen pozoidura? Gezurrak berak ito, handiegi baitzen.

Beraz ixtudiant frantsesek eman jateko ondar bati buruz ari zelarik Rusiano bat, eskutik untzia hartu ta ereman zioen judu batek: salboin ura ikatz herrautsarekin nahastekaturik erakutsi zuen Aleman aintzindariari. Judu haren izena badakigu sekulan behartzen balin bagira: deitzen da Auser Tepsako.

Egitate horren ondorioak urrun zoazken: ixtudiant frantsesak preso ezar-arazirik berex elgarretarik, sekulako zikindurik; oihu egin Rusiako gobernamentuari, gurekin hausteko xedea hartzera zohan egun lazgarri hetan, erranez gu ginela egiazko etsaiak.

Hola gertatu zen. Rusianoek metaka beren izena paper baten zolan ezarri zuten; paper hura juduek moldaturik, joan zen Rusiako gobernamenturaino.

Anartean Alemanak ere lanari lotuak ziren, gure herraus-
teko paperen ateratzen.

* * *

Frantses apez geien buruzagia zen orduan Ameriketarik jinikako misionest bat, dena zaina, dena bihotz, Indianoen ondotik ibilia Kolombia-ko oihan izigarrietan barna, Aita Rochereau.

Alemanian sartua zen presuner, hats bizi, gorputza zilata zetabe bat bezala. Hartarik ateratu, pizkortu, gatua bezen zaila baitzen, eta Munster-eko kanpadera hartan sartu apez geien buruzagi gisa.

Gezurrean behar zituela Alemanak eta Rusianoak atzeman, paper bat egin arazi zuen, hartan ezarririk Rusiano mintzaiari gezurrezko solasak zirela heien pozoindatzeaz erabili ziren haroak.

Rusianoek berriz ixtudianten ondarren milikatzeraz jinik, pozoina bazen ala ez bazen, paper berri hortan ezarri zuten beren izena. Judu bat agertu zen lan horri buruz ari zirelarik: oro ihesi eskapatu ziren harrituak, debrua ikusten bezala ikara batek harturik. Bainan bazuten istudiantek aski izen bildurik. Papera jeneral Alemanari hel-arazi zioten.

Ikusirik bere lekukokoak baietik ezera itzuliak, garrazki gaztigatu zituen Rusoak. Etziren jende Rusoak Alemanian, zakur kondu ziren. Gurekin aldiz, zuzenaren itxura bederen erakutsi behar zen.

* * *

Pozoinaren hobenez bertzerik bazuen ixtudianten bizkarrean ezartzeko.

Errana zuten holetan ixtudiant frantsesek urde batzu zirela Rusoak Alemanekin bakea berex egiteari lotzen balinbaziren. Solas pisua, Alemaneri kalte egitekoa presuneraren ahoan ezin barkatuzkoa!

Bainan nork errana zuen solasa? Jakin behar zen.

Egun batez, ixtudiant guziak lerro lerro eman-arazirik, Ruso bat ekarri zuten heien aitzinera, erakutsi behar zuela zoinek zuen errana urde batzu zirelako solas izigarria.

Ruso gaizoa lanetan zen: etzakien eta nori lot: Frantse-
sen aitzinetik iragan zen harritua, piltzar bat iduri, Ale-
manek oihuka zerabilkatela, ea bada etzuen hobenduna
ikusten!

Frantsesek irria ezpainetan zuten orok. Iduriz garrantia
irabazia zuten bururen buru: xahu ziren, semenarioaren az-
ken eguna zen.

* * *

Errearoaren 16^a 1917, hogoi-ta hamar gizon sartu ziren
haizea bezala ixtudianten taulazko barne hartara: *Aus, los
Weg*, fuera guziak hortik!

Bazter guziak ikertu zituzten, kapera eta oro, tabernaklea
ere ideki. Zeren ondotik ote zabiltzan?

Huna zer atzeman zuten eta berekin ereman: Gilamu eta
Gilamusaren iduri bat, zolan bizpalau hitz zauzkana, frantses
batek ezarriak irri egiteko; letra zonbeit kanpoko lagune-
tarik ukanak osagarriaz mintzo zirenak; eta gero hiru mende
huntan eginikako neurtitz batzu, frantsesez, ihizi gaixtoak
ohatzean behar direla garbitu.

Etzen gehiago dudarik gelditzen Alemanentzat: ihizi gaix-
toak hek ziren, eta guk Alemania guzian heien garbitzeari
buruz sare gordeak hedatuak ginauzkan!

Igorri zuten berria Berlinera, Suisa-ra, Erromara, Aita
Sainduari, mundu guziak jakin zezan ixtudiant frantsesekin
etzela bizitzerik, bazter guzien nahasle zirela eta Alemaniaren
barneko etsai gorde gaixtoenak.

* * *

Biharamun goizean, apez geiak beren barnean preso zi-
ren. Igandea zen.

Kapelarat ez baitziren haizu mezaren entzuteko, Aita Rochereau igorri zuten, ekar zezoten bederen kominiatzera. Anar-tean hogoi ixtudiant ereman zituzten Alemanek hiriko pre-sundegi batetara, bertezak barnean utzirik beren tokian.

Aita Rochereau itzuli zen ostia sainduarekin. Mahain ttipi bat baitzuten hartako apaindua, harren gainean ezarri zituen, benedikatu bere haur maiteak, eta hartu ostia bat eskuetan... Ordu berean hogoi-ta-hamar Aleman makilak eskuetan, zakur saingak iduriko karrasia batean sartzen dira, joka, ostikoka, herra dariotela begietarik eta mihitik.

Kanpora bildu ziren ixtudiant ondarrak: elgarrekin go-raki otoitz bat eginik Andre dena Mariari, juan ziren hek ere gaztiguari buruz, etsaiez inguratuak, bainan kopeta xut eta argi, kantuz errepikan.

Euskaldun bat bazen heien artean Olhagaray Larresso-rarra.

Horra nola zen barreiatu Munster-kanpaderatik ixtudiant frantsesen bilkura.

VIII

...Goiz batez jin zitzautean soldado bizardun kankail zakar bat, xixpa bizkarrean: «*Weg!* Goazen! —Norat? —*Limburg-era!*».

Soinekoetz bertzerik ez bainuen, laguneri esku emaita nuen lan bakarra: jateko poxi bat ere bildu nuen bideko, frantses bihotzdunek emanik, baitzakiten holakoetan barur osoaren legea jasaiten presunerek.

Norat abiatu nintzan berriz? Limburg zelako hiri hortaz ez nuen garbitasunik batere. Entzuna nuen bakarrik harat bilduak zirela Munster-etik barreiatu zituzten apez gai frantses andana bat: eskola emaile baten ondotik zabiltzala alemanak.

Bidea ezin ederragoa nuen, geroa zer behar baitzen ere: *Rhin* ur handiaren aran aipatua, Alsace-ko aldera goiti.

Ikastegi eta lantegi handien eremuak iraganik, Cologne-ko hirian gaindi hegoari buruz ginoazin.

Handik harat, zelaia hertsia, bi aldetarik mendia ur handiraino hedatzen baita, kaskoetan oraino xutik dauzkala gaztelu zaharren dorreak, arrano ohandzeak bezala harroka gainean jarriak.

Hainbertze jauregi zahar ez dut bertze eskualdetan ikusi; holako tokietan bereziki: gerlari arras emanak ziren lehengo Alemanek ere, oraikoek bezala, lan gaitzak erabiltzen zituzten beren buruen zaintzeko.

* * *

Coblentz-eko hirian, *Rhin* delako ibaiarekin bat egiten dute bertze bi ur laster ederrek: bat *Mosella*, Frantziatik jautsia, Metz eta Trèves hirietan gaindi, bertzea Logana, Alemania barnetik jina.

Ur hunen hegitik abiaturik toki xoragarri batzuetan gaindi, iluneko Limburg-en ginen.

Etzen nik uste bezalako hiri handia. Lehengo itxura begiratu du, bere karrika hertsu eta etxe zaharren moldean, iduri bailuke oraiko mendeaz ez duela den gutieneko axolarik; bertze hiriak harrabotsean lanarekin zalapartaka ari direlarik, ikatzak belztuak, keak itoak, alde orotarik sukarrarekin borrokan, sosegu handiengan dago Limburg, ixil ixila bere eliza nausi ederraren oinetan.

Handik oren erdi baten bidean, zelai handi baten erdian, presuner frantsesen kanpadera.

* * *

Han sartu ta batetik bertzera nindabilaten, etzakitela zer egin nitaz: azkenean ikusi zuten paperetan eritegiko jina nintzala.

Presuneraren eritegi bat bazen han berean, eritegiarekin bat egiten zuela, taulazko barne handi bat, burdin harriz inguratua, soldadoz zaindua gain gainetik. Han sar-arazi nintuzten.

Ordu berean, hatsaren hartzeko eperik utzi gabe, frantsesek alde orotarik lasterka jan behar nuela, edan behar

nuela, tira biraka, oro betan mintzo, eta ni han. erdi burzoratua, mihia ezin aski zalu erabiliz ororekilakoaren egiteko.

Munster-etik barreiatu apez, geiak nintuen han.

Norat ziren harat berriz bilduak, hoinbertze jasan ondoan, ez da errex jakitea. Dena den, gerlako ministroak berak bere gain zuen heien zaintzea. Berex ezarri zituen bertze frantsesetarik, esku handiegia zutelakotz hauen artean; zaintzale bereziak eman; taulazko hesi batez zerraturik burdin hariz inguraturik.

Hango lehen hiru hilabeteak arras gaixtoak izan ziren. Barnean hotza, kanpoan ura, apezik ez; ororen gainetik gaizki ikusiak Alemanen etsai bereziak bezala. Emeki emeki berek baratze bat ateratu zuten urtoki hartarik; eskolari lotu ziren beren arteko argituenak emanik buruzagi, baitziren han gizonak, bihotzez ala adimenduz jada zer nahitako gai zirenak.

* * *

Apez Aleman batekin zuten beren egitekoa. Hau ere beretu zuten emeki emeki, apez frantsesak behar zituztela baitzupada. Hola nintzan han hartua.

Alemaniko nere azken egunak han ereman nintuen. Ez dut ezagutu nehun halako batasunik nola gizon gazte heien artekoa. Bihotz guziek bat egiten zuten. Lehen giristinoen artean bezala, jatekoak eta bertze asko oro batean emaiten zituzten, ez baitute sekulan Alemanek halakorik ikusi, eta harrituak baitzauden nolaz bada gure arteko bakeak irau zezakeen den gutieneko itzalik gabe.

Hala irau zuen, Jainkoari esker. Baratzea, otaitza, eskola, etzen han bertzerik ikusten, eguna bururen buru zati-tua baitzen xeheki, oren guziez baliatzeko.

J. S. P.